

HISTORIA MEDIKOA EUSKARAZ IDAZTEKO ETA MEDIKUEK EUSKARAZ LAN EGITEKO ESKUBIDEAREN ALDEKO ADIERAZPENA

Xxx udalak / UEMAk, Aitor Montes Aramaioko familia medikuak paziente baten historia medikoa euskaraz idazteagatik jasan duen jazarpena dela eta, ondorengo

ADIERAZI nahi du:

- Euskara da Euskal Herriko berezko hizkuntza eta Euskal Erkidego Autonomoan gaztelaniarekin batera hizkuntza ofiziala. Beraz, bi hizkuntzen erabilera legez babestua dago, eta bieie aitortzen zaie balio juridikoa.
- Horiek horrela, lan eremuan euskaraz lan egiteko eskubidea bermatu beharko litzateke. Beraz, euskaraz lan egin nahi izateagatik langile batek jasandako ezein jazarpenen kontra agertu nahi dugu.
- Kasu honetan, Aitor Montesek jasandakoa jazarpen gisa ulertzen dugu eta berari gure elkartasuna eta babesa helarazi nahi dizkiogu.
- Horrekin batera, Debagoienako ESIari eta Osakidetzako Zuzendaritzari ondorengo

PROPOSATU NAHI DIEGU:

- 1) Gure aldetik egin bezala, eurak ere, euren langilea den Aitor Montesi euren elkartasuna eta babesa helaraztea. Aldi berean, euskaraz lan egin nahi duten medikuek euren laguntza eta babesa izango dutela adieraziz.
- 2) Jazarpen egileari dagokionez, egindakoaren ardura beregain hartu dezan, eta halakorik berriro errepikatu ez dadin, neurriak har ditzatela.
- 3) Historia medikoa euskaraz idazteko eskubidea behar bezala jaso dezatela dagozkien arauetan, protokoloetan edota kode deontologikoetan.
- 4) Historia medikoa euskaraz idazteko bitartekoak garatu eta lehenbailehen mediku guztien eskura jar ditzatela.

Iraitz Lazkano Garitaonandia
UEMAko lehendakaria